

## Ordainketa-kontu bati lotutako zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda

<b>Kontua mantentzea</b>	Entitateak kontua kudeatzen du, bezeroak eragiketak egiteko erabili ahal dezan.
<b>Zordunketa- txartela jaulki eta mantentzea</b>	Entitateak bezeroaren kontuari lotutako ordainketa-txartela ematen du. Txartelarekin egindako eragiketa bakoitzaren zenbatekoa zuzenean eta osorik zorduntzen da bezeroaren kontuan.
<b>Kreditu-txartela jaulki eta mantentzea</b>	Entitateak bezeroaren kontuari lotutako ordainketa-txartela ematen du. Adostutako aldian txartelaren bidez egindako eragiketen zenbatekoa osorik edo partzialki zorduntzen da, bezeroaren kontuan, adostutako datan. Entitateak eta bezeroak sinatutako kreditu- kontratuan zehaztu egiten da erabilitako zenbatekoen ondorioz interesik ezarriko ote den.
<b>Zorpeko adierazia</b>	Entitateak eta bezeroak aldez aurretik adosten dute bezeroak fondorik eskura dezakeen kontuan saldo eskuragarri ez duenean. Akordio horretan zehaztuko da bezeroak eskuragarri izango duen gehienezko zenbatekoa, eta baita komisioak eta interesak ordaindu beharko dituen ere.
<b>Isilbidezko zorpekoa</b>	Bezeroak kontuan eskuragarri duen saldoa gainditzen duten fondoak jartzen ditu entitateak bezeroaren eskura. Ez dago aldez aurreko akordiorik entitatearen eta bezeroaren artean.
<b>Transferentzia</b>	Bezeroaren aginduei jarraikiz, entitateak fondoak transferitzen ditu bezeroaren kontutik beste kontu batera.
<b>Agindu iraunkorra</b>	Bezeroaren aginduei jarraikiz, entitateak zenbateko jakin baten transferentzia egiten du, aldian behin, bezeroaren kontutik beste kontu batera.
<b>Kutxazain automatikoetan dirua ateratzea, txartelaren bidez zordunketa eginez</b>	Bezeroak beste entitate bateko kutxazain automatiko batean bere kontutik dirua ateratzen du, txartelarekin, eskuragarri duen saldoaren kontu.
<b>Kutxazain automatikoetan dirua kreditura ateratzea, txartelaren bidez</b>	Bezeroak bere entitateko edo beste entitate bateko kutxazain automatiko batean dirua ateratzen du, txartelarekin, fondoak bezeroarentzako irekitako kreditu-lerro batez estalita daudenean, eta kontuan eskuragarri dagoen saldoa edozein delarik ere.
<b>Alerta-zerbitzua (SMSa, posta elektronikoa edo antzekoak erabiliz)</b>	Entitateak bezeroaren kontuan izandako mugimenduei buruzko informazioa bidaltzen du, SMS bidez, posta elektronikoz edo antzeko teknologiaren bat erabiliz.
<b>Txekeak negoziatu eta konpentsatzea</b>	Entitateak beharrezko gestioak egiten ditu txeke bat kobratu ahal izateko.
<b>Txekeak itzultzea</b>	Entitateak egintza jakin batzuk egiten ditu, beste entitate batek txeke bat ordaindu ez izanaren ondorioz.